

Durango Kirolak-ek ikasturte berriari ekin dio, hainbat zerbitzuren berrirekiearekin

Durangoko Udalak. Durango Kirolak-en bitartez, Segurtasun Plan ezberdinak landu ditu udan zehar, ikasturte berriarekin batera hainbat kirol zerbitzu berrirekitzeko asmoarekin. Gauzak horrela, Landako 2-ko igerilekua, Rokodromoa edota Fitness aretoa berriz ere irekiko dira, segurtasun protokolo zorrotz baten menpe.

“Egoera zaila da guztiontzat, baina argi daukagu Durangon segurtasun neurriak beteko ditugula. Udalean durangarren osasuna zaintzeko hautua daukagu lehen egunetik, eta, nahiz eta badakigun horrek zerbitzuen birplanteaketa bat dakarrela, osasuna gure jardunaren erdigunean jarri nahi dugu”, adierazi dute udal ordezkariak.

Igerilekua:

Landako 2-ko igerilekuari dagokionez, irailaren 7an irekiko da, behin Tabirakoak ixten direnean. Orduategiari dagokionez, ohikoa izango da. Segurtasun protokoloari dagokionez, sarrerako desinfekzio gunetik pasa beharko da derrigorrez. Gainera, aldagelak erropak aldatzeko erabili ahalko da soilik, eta ezingo da dutxatu. Musukoa igerilekuraino eraman beharko da.

Rokodromoa:

Zabalik dago irailaren 1etik aurrera, astelehenetik ostiralera 17.00etatik 22.00etara. Larunbatetan: 10.00etatik 12.00etara. Jarduera musukoarekin egin beharko da, eta esfortsu handia egin behar bada, musukoa kendu ahal izango da, begiraleak baimenduta. Gainera, toalla eramatea beharrezkoa izango da (hondartzara eramaten den modukoa).

Ez da eskalatzeko materialik utziko (katuak, arnesak...) eta erabiltzen diren koltxonetak erabili ondoren desinfektatu behar dira. Aldagelei dagokienez, erropak aldatu eta duxatzeko erabili ahal izango dira. Edukiera txikiko aldagelak erabil daitezke. Hala ere, ez erabiltzea edo ahalik eta denbora gutxien pasatzea gomendatzen da, edukiera errespetatuz.

Fitness aretoa:

Iraileko lehen astean abuztuko ordutegi bera jarraituko da, eta hortik aurrera ordutegi eta txanda berriak egongo dira. Beharrezkoa izango da txanda erreserbatzea, sarrera erosiz edo aurretik fitness jardueran alta emanda. Bestelako baldintzak abuztuko berak izango dira:

<https://www.durangokirolak.net/noticia.php?item=663&sel=index.php&idioma=euskera>

Aldaketarik nabarmenena ikastaroen izen-emateei dagokiena da. Izan ere, aurreko urteetan, ekainean zerbitzuren batean izena emanda zeuden erabiltzaileei, besterik esan ezean, automatikoki berrizten zitzairen. Aurten ordea, ez da horrela egingo:

“Martxotik ez da ikastarorik eskaini, eta etikoki ez zitzaigun justua iruditzen martxotik gure zerbitzuak erabili ez dituenari kuota irailean automatikoki berriztea. Horregatik, iraila berriz ere izena emateko epe bezala hartuko dugu, hala nahi duenak gure zerbitzuetaz berriro ere goza ahal dezan”, adierazi dute Durango Kirolak-eko arduradunek.

Gainera, osasun egoeraz gain, Durango Kirolak-en egoera ekonomikoa ere “delikatua” dela adierazi dute arduradunek: “Logikoa den moduan, martxotik ez

zaizkie abonurik kobratu erabiltzaileei, baina Durango Kirolak-ek zerbitzuak kudeatzen dituen enpresari berdin ordaindu behar izan dio. Orain, ikasturte berriarekin, egoera berri batean gaude, eta eskaera eta eskariaren arteko oreka bat bilatu beharko dugu”.

Izan ere, abuztu bukaerarako aurreikusitakoaren %40ko diru-sarrerak soilik jaso ditu Durango Kirolak-ek, eta arduradunek aurreikusi dute horrek, urte bukaerarako, 600.000 euroko defizit negatiboa suposatuko duela.

Dena den, irailean zenbait ikastaroetako zerbitzu minimoak eskainiko dira, berehala sasoian jarri nahi duenarentzat. Jarduera guzti hauek Landako I eraikinean egingo dira. Urritik aurrera, berriz, ikastaro gehiago eskainiko dira. Gainontzeko jardueren egutegi eta ordutegi berriak irailean zehar jakinaraziko dira.

INFORMAZIO GEHIAGO:

<https://www.durangokirolak.net/noticia.php?item=753&sel=index.php>